Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputación Foral de Gipuzkoa

# Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana

# Aurre!

ORAIN GIPUZKOA

2016ko azaroa

# I.- Testuinguruan kokatzea

## Sarrera

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta ematen dieten euskal erakunde guztiek 2009an sinatu zuten Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa izeneko dokumentuaren testuan jasota dagoen moduan,

*"Emakumeen aurkako indarkeriak emakumeek bizitzaren eremu ezberdinetan jasaten duten egiturazko ezberdintasun egoeran ditu erroak. Desberdintasun horri gizartean eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio, banaketa horrek emakumeak gizonen azpitik jartzen baititu. Emakumeen aurkako indarkeria ezberdintasun horren beste isla bat da, ziurrena larriena dena, baina horrez gain, gizartea kontrolatzeko funtsezko tresna da, ezberdintasun egoerari eutsi eta iraunarazi egiten baitio"*[1].

Berez, nazioartean onartuta dago emakumeen aurkako indarkeriaren kausak estu-estu lotuta daudela emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun historiko eta estrukturalei, eta, ezberdintasun horiek errotik kentzeko aurrera egiten ez dugun bitartean, zaila izango dela emakumeek indarkeria matxistarik gabeko bizitza librerik bizitzea. Horregatik, gure testuinguruan ere berdintasunaren inguruko arau-esparrua dugu (*4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa*[2] *eta 2/2015 Foru Araua, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa*[3]), emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borroka esku hartzeko funtsezko ardatzetako bat bezala jasotzen duena.

Hamarkada hauetan asko aurreratu dugu politika publikoetan, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko ikerketaren, prebentzioaren eta arretaren esparruan. Hala ere, politika horiek hobetzeko beharraren kontzientzia gero eta argiagoa da, ezinbestekoak baitira emakumeek aurre egiten dieten indarkeria mota guztiei (fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, sexuala) bizitzaren esparru guztietan (bikotea, familia, lana, ikastetxeak, aisialdiko espazioak, espazio publikoak,...) eta bizitza zikloan zehar behar bezala heltzeko.

---

1 http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/es_def/adjuntos/2.acuerdo.interinstitucional.cas.pdf

2 https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2005/03/s05_0042.pdf

3 https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2015/03/16/c1502351.pdf)

Orain arte, oro har, politika publikoek bereziki jorratu dute emakume helduek bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik[4] pairatzen duten indarkeria matxista. Horren lagungarri izan da, zalantzarik gabe, 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Legea, genero indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa. Legearen edukian, hain zuzen ere, “genero-indarkeria” deritzon indarkeria mota honen ingurukoa da[5].

Europa mailan, azken urteotan, aurrerapen handia izan da politika publikoen orientazioan. Hala, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako borrokari eta prebentzioari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak (Istanbulen 2011n sinatu eta modu orokorrean eta Espainian 2014ko abuztuaren 1ean indarrean sartu zenak[6]) proposatzen du estatuen betebehar orokorren barruan aurreikusitako neurrien ezaugarri gisa honako hauek jasotzea:

- Generoan oinarritutako emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria izan dezatela ardatz eta biktimaren **giza eskubideak eta segurtasuna** izan dezatela xede nagusitzat.
- **Ikuspegi integrala** izatea, eta kontuan hartzea biktimen, delitugileen, neska-mutilen eta horien guztien ingurune sozial zabalaren arteko harremana.
- Neurrien helburua izatea **bigarren biktimizazioa** saihestea.
- Indarkeriaren biktima diren emakumeen **ahalduntzea eta burujabetza ekonomikoa** helburu izatea.
- Neurri horiek, behar izanez gero, aukera ematea espazio beretan **babes eta laguntza zerbitzuak** ezartzeko.
- Neurri horiek **pertsona kalteberen premia bereziei** erantzutea, baita biktimen seme-alabei ere, eta pertsona horientzat guztientzat eskuragarri egotea.

Azken urte hauetako legegintza arloko aurrerapenen emaitza gisa, zabaldu egin da erakundeen jarduera esparrua, emakumeen aurkako indarkeriari erantzun egokiak eman ahal izateko, bikoteaz harago eta berehalako babesaz harago.

Planteamendu horiekin bat eginez, 2013an, Foru Aldundia emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako foru politikak berrikusten hasi zen, eta horren jarraipen gisa, 2016tik 2019ra bitartean, gutxienez, indarrean egongo den foru plan hau prestatu da.

[4] Azken urteotan gazteenganako indarkeriak geroz eta kezka handiagoa sortu badu ere, oraindik ez da lortu dauden zerbitzuak laguntza erreferente izatea bikotearen barruan sexu indarkeria pairatzen duten nerabe eta gazteentzat.

[5] https://www.boe.es/boe/dias/2008/02/13/pdfs/A07773-07785.pdf

[6] https://www.boe.es/boe/dias/2014/06/06/pdfs/BOE-A-2014-5947.pdf

## Egindako lana

2013an, foru politikak berrikusten hasi ziren. Ordura arte, politika horien jarduera eremua, batik bat, genero indarkeriaren arreta izan zen, hau da, bikoteak edo bikote ohi heterosexualak emakumearen aurka eragindako indarkeriaren arreta. Oinarrizko kontzeptuak eta, beraz, arreta politikak hedatzeko asmoarekin, Berdintasunerako Organoak eta Gizarte Politikako Departamentuko Gizarte Larrialdietako eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako Atalak elkarlanari ekin zioten, esku hartzea berraztertzeko eta ikuspegia hobetzeko.

Ikuspegi horretatik, emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko foru-politikaren eredu bat diseinatu genuen, fase hauetan garatu zena:

***1. fasea (2012ko uztaila-2013ko otsaila)***

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko foru politika aztertu zen, sendotasunak eta ahultasunak identifikatzearren.

Prozesu horretan, Berdintasunerako Organoko eta Gizarte Politikako Departamentuko Gizarte Larrialdietako eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako Ataleko langile politiko zein teknikoek parte hartu zuten barne esparruan, eta baita Foru Aldundiko arreta zerbitzuen arduradunek ere.

***2. fasea (2013ko azaroa-2014ko maiatza)***

Berdintasuneko eta Gizarte Politikako Departamentuko Gizarte Larrialdietako eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako Ataleko langile politiko zein teknikoak elkarlanean aritu ziren saioetan, eta baita kanpoko arreta zerbitzuen arduradunak ere, helburu hauekin:

- Indarkeria matxistaren adierazpen desberdinak izendatzeko **terminologia** eta **oinarrizko kontzeptuak** lantzea eta adostea, ikuspegi teoriko zabalagoa jaso eta lege mailan dauden nomenklatura desberdinak bateratu ahal izateko. Azken helburua zen indarkeria mota eta maila ezberdinak adierazten badituzte ere sinonimo modura erabiltzen diren kontzeptu eta termino desberdinen nahasketa praktikoak minimizatzea.
- Indarkeria matxistari aurre egiteko foru politikaren eredua adostea: Berdintasunaren eta Gizarte Politikaren arteko eginkizunak eta eskumenak, esku hartzeko esparrua eta estrategia, eskaini beharreko zerbitzuak eta baliabideak, bertan egin beharreko aldaketak eta hobekuntzak berrantolatzea, indarkeria matxistari aurre egiteko foru

politikaren koordinazio-, jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak definitzea, eta epe ertainean zer erronkari aurre egin beharko zaien identifikatzea.

***3. fasea (2014ko ekaina-2015eko martxoa)***

Lana funtsezko bi alderdiren ingurukoa izan zen:

› Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeei arreta emateko **foru zerbitzuen diseinua**, adostutako ereduaren arabera.

› Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako borrokari foru esparruan ekiteko **barne lana egiteko ereduaren diseinua**, geroago *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren* 52. artikuluan jaso zena. Ildo horretan:

- Politikaren esparruan esku hartzeko alorrak **ikerketa, prebentzio eta sentikortzea, prestakuntza** eta indarkeria matxistari aurre egiten dioten biktimei **arreta ematea** direla adostu da. Esparru horretan, foru politika esku-hartze arlo guztietan eskumena duten departamentuekin koordinatzeko ardura duena Berdintasunerako Organoa da.

  Halaber, Gizarte Politikako Departamentuak indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeei arreta emateko baliabideak eta zerbitzuak abian jartzeko ardura izango du, emakumeak ahalduntzeko ikuspegitik, emakumeei egoera horretatik behin betiko irtetea ahalbidetuz horrela. Betiere, Departamentuaren eskumenen esparruan, eta Gizarte Zerbitzuen Legetik eta horren garapenetik eratorritako erantzukizunen esparruan.

  Bai Berdintasunerako Organoak bai Gizarte Politikako Departamentuak genero ikuspegitik arreta ematen zaion indarkeriaren azterketa elkarrekin sustatzeko ardura izango dute, eta, era berean, politika osoaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak ezarriko dituzte.

  Horretarako, Foru Arauan batzorde politiko eta teknikoa sortzea aurreikusten da; Berdintasunerako Organoaren zein Gizarte Politikako Departamentuaren ordezkariek osatuta egongo da, eta azterketa, prebentzioa eta prestakuntza lotzea ahalbidetuko du.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren mende dauden kanpoko zerbitzuen baliabideetako langileei indarkeria matxistaren alorrean prestakuntza espezializatua bermatzeko egokiak diren neurriak abian jartzea adostu da.

› Azkenik, eta **arreta zerbitzu espezializatuei** dagokienez, ondorengoa adostu da:

- Esku-hartzearen helburua izan behar da bizirik atera diren emakume biktimen ahalduntzean esku hartzea, emakumeak egoeratik sendotuta irteteko aukerak zabaldu eta, horrela, indarkeria sexista berriro pairatzea saihestearren.
- Hauek izango dira gutxieneko zerbitzuak: arreta soziojuridikoko zerbitzua, arreta psikosozialeko zerbitzua eta harrera eta esku-hartze psikosozialeko zerbitzua.

***4. fasea (2015eko apirila-maiatza)***

Lanaren azken fasean, proposamena Gipuzkoako udaletako berdintasuneko teknikariei eta gizarte zerbitzuetako langileei aurkeztu zitzaien, bi arloetako langileekin batera lurralde esparruan egin zen lehenengo saioan.

## Emaitzak

Ondorengoak dira Berdintasunerako Organoaren eta Gizarte Politikako Departamentuko Gizarte Larrialdietako eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako Atalaren artean 2012ko uztailetik 2015eko maiatza bitartean egindako lanaren emaitza esanguratsuenak:

1. Indarkeria matxistari buruzko **agiri terminologiko eta kontzeptual bat** prestatzea, geroago Gipuzkoako udal guztietan zein Emakunden aurkeztu zena. Bertan, indarkeria matxista termino orokor moduan erabiltzen da, eta definizio hau ematen da: sozializazio bitarrean eta genero ezberdintasunean jatorria duen indarkeria. Termino horren barruan, bi indarkeria mota daude:
   - ***indarkeria sexista,*** hau da, emakumeek emakume izateagatik jasaten duten indarkeria; duen helburua emakumeen kontrola eta haien gaineko nagusitasuna betikotzea da.
   - ***beste indarkeria matxista batzuk,*** hau da, atxikita daukaten genero bitarra eta sexualitate eginkizun sozialei erantzuten ez dieten pertsonek pairatzen dituztenak. Homofobia, lesbofobia eta transfobia lirateke.

   Horiek horrela, adostu zen indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko foru politikak emakumeen aurkako indarkeria edo indarkeria sexista jorratuko lukeela, izan ere, Foru Aldundiak zuzeneko eskumenak ditu arlo horretan arreta eman, ikertu eta prebenitzeko, eta, horrez gain, zabalduen dagoen indarkeria mota da, eta gizartean eragin handiena duena. Nolanahi ere, eta prebentzio, prestakuntza eta ikerketa esparruari lotuta, egoki iritziz gero, indarkeria matxista terminoa erabiliko da, ulergarriagoa gertatzen baita.

   Edozein kasutan ere, prestatu eta adostu den agiri terminologikoak hizkera partekatua sortzea ahalbidetu du, eta horri esker fenomenoa aztertu ahal izan da eta foru-jarduketen nahiz arreta zerbitzuen eskaintzaren jarraipen egokia diseinatu eta burutu, gizartearen behar eta eskaerei gero eta hobeto erantzun ahal izateko.

   Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamen terminologikoak aukera ematen digu indarkeria matxistaren egiturak eta arrazoiak ulertzeko eta horien esparrua zabaltzeko; aldi berean, ezinbestekoak diren beste esparru batzuetara egokitzeko aukera ematen du, hala nola EAEko eta estatuko esparruetara.

Taula honetan jasota daude normalean erabiltzen diren terminoak eta EAEko eta estatuko esparruan dituzten baliokideak:

- Indarkeria sexista = emakumeen aurkako indarkeria matxista
- Indarkeria sexista = **emakumeen aurkako indarkeria** (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa)
- **Genero indarkeria** (1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso-ososko babesa emateko neurriei buruzkoa) = Indarkeria sexista bikote edo bikote ohien eskutik
- Indarkeria sexista = genero indarkeria+familiaren, lanaren eta gizartearen barruko indarkeria
- *Indarkeria matxista = indarkeria sexista + (transfobia + lesbofobia + homofobia)* + genero barruko indarkeria
- Jazarpen sexista = izaera sexualekoa ez den indarkeria sexista lanean, eskolan, espazio publikoetan eta bestelakoetan

2. Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei **arreta emateko zerbitzuak** definitu eta berriz diseinatzea. Zerbitzu horiek honela antolatuta geratu dira:

   - *Arreta soziojuridikoa*

     Orientazio juridikoko prestazioa da, indarkeria matxistaren egoerei irtenbidea emateko informazioa eta prozesu aurreko orientazioa eskaintzen dituena, tresna juridikoen bidez.

     Programaren barruan, indarkeria matxistaren biktimak diren eta arlo juridikoan eta zuzenbide arloan familiari zuzendutako baliabideen inguruko legezko informazioa eta aholkularitza nahi dituzten emakumeei arreta ematen zaie. Zerbitzuak osotasunetik erantzuten die tratu txarraren eta sexu askatasunaren aurkako ustezko egintzen ondorioz sortzen diren aholkularitza soziojuridikoaren beharrei, zer esparrutan gertatu diren alde batera utzita.

   - *Arreta psikologikoa, banakakoa eta taldekoa*

     Zerbitzuak arreta ematen die indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei, bai banakako bai taldeko esku-hartzearen bidez, haien ahalduntzea sustatu eta, horrela, beren bizitzaren kontrola hobetzearren.

Zerbitzuak indarkeria sexistaren ondorioz sortzen diren behar psikoemozionalei heltzen die, zer esparrutan gertatu diren alde batera utzita: bikotea, familia, gertuko ingurunea, kalea, lan-esparrua,...

Halaber, zerbitzuak arreta ematen die emakume biktimen seme-alabei, uste baitugu horiek ere amaren aurkako indarkeriaren biktima zuzenak direla, geroago haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legean ezarri den bezala.

- *Arreta psikosoziala*

Zerbitzu sortu berria da, emakumeei egoera hauetan arreta eskaintzen diena:

› *Segurtasun, kontzientziazio eta laguntza programa,* hainbat arrazoirengatik harrera zentroan bizi ez diren baina balorazioaren arabera indarkeria jasateko arrisku handia duten eta haientzat berariazko plan bat prestatu eta abian jartzeko beharrean dauden emakumeentzat.

› *Jarraipen programa,* egonaldi labur edo ertaineko zentroan egonaldia amaitu eta banakako edo familiari zuzendutako arreta planaren jarraipenaren beharra duten emakumeentzat, ahalduntzeko ibilbidean aurrera jarraitzearren.

- Harrera programa

Beraientzat eta bere ardurapean dituzten pertsonentzat espazio fisiko seguruen beharra duten emakumeentzat. Hiru maila daude:

› *Berehalako harrera zentroa*

Egonaldi laburreko zentroa da, eguneko 24 orduetan funtzionatzen duena, urteko egun guztietan. Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak hartzen ditu berehala, eta kasuaren balorazioa egin eta, egokia bada, baliabide egokiago betara bideratzea proposatzen da bertan.

Zentroko egonaldi luzeena hilabetekoa da, eta beharrezkotzat jotzen bada, luzatu egin daiteke.

› *Egonaldi ertaineko harrera zentroa*

Egonaldi ertaineko edo luzeko harrera zentroa da, indarkeria matxistaren biktimak diren eta osoko esku-hartze espezializatua behar duten emakumeen babes- eta aldi baterako ostatu-eskaerei erantzuten diena.

Egonaldiaren denborazko muga sei hilabetekoa da, eta egokia bada luzatu egin daiteke, baldin eta beharren beste balorazio baten arabera gomendagarria bada.

› *Autonomia-etxebizitzak*

Iraupen laburreko ostatua eskaintzen diete emakume biktimei eta haien bizikidetza unitateei, harrera zentro batetik igaro eta gero, baldin eta intentsitate handiko babes neurrien beharrik ez badago eta suspertzeko eta indarkeria sexistaren egoera gainditzeko bizilekua berehala erabilgarri ez badago.

Aldi baterako da. Egonaldia sei hilabetera luza daiteke gehienez, baina salbuespen gisa, iraupen bera duen beste aldi batez luza liteke.

# II.- Lan esparrua

Aurreko atalean adierazi dugun bezala, jadanik badago lan esparru definitu bat foru mailan. Esparru horren funtsezko antolaketa Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauan jaso da, IV. Tituluaren V. atalean -Lurraldean indarkeria matxistarik gabeko bizitzak sustatzeari buruzkoa-.

Ildo horretan, ondorengoa litzateke **foru mailako funtzionamenduaren egitura**:

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Organoa**

Indarkeria matxistaren aurkako foru politikaren diseinua, jarraipena eta ebaluazioa egiteko, Gizarte Politikako Departamentuarekin koordinazioa sustatzeko ardura du (2/2015 FA, 8.1.d) artikulua).

Halaber, Berdintasunerako Organoak Gizarte Politikako Departamentuari indarkeria matxistari arreta emateko eredua antolatzeko ardura du, berdintasunaren aldeko politiken esparruan.

Azkenik, Organoari laguntzea dagokio, baita ere, indarkeria matxista beren eskumeneko foru politiketan zeharka sartzeko ardura duten beste foru departamentu batzuei.

**Gizarte Politikako Departamentua**

Indarkeria matxistaren biktimei bigarren mailako arreta emateko baliabideak eta foru zerbitzuak abian jartzeko ardura du (2/2015 FA, 52.2 art.).

**Beste foru departamentu batzuk**

Beren arloko politiketan indarkeria matxistari heltzeko eginkizuna zeharka sartzea dagokie, bereziki ikerketaren, sentsiblizazioaren eta prebentzioaren ikuspegitik (2/2015 FA, 52.2 eta 3 artikulua, 54.4 eta 55.2 artikuluekin lotuta).

## 2.1. Lan egiteko esparruak

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Foru Planaren barruan garatu beharreko lana hiru esparrutan egituratuko litzateke:

1. **Foru esparrua**

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 FAn jadanik diseinatuta eta jasota dagoen funtzionamendu egitura kontuan hartuta, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko foru politikari zeharka helduko litzaioke.

Hau da, alde batetik, sustatu, koordinatu eta jarraipena egiteko organo bat egon behar da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa, eta bestetik, parte hartzen duten departamentuek zuzeneko lana egin behar dute. Hauek dira aipatutako departamentuak:

A. **Gizarte Politikako Departamentua**, bere ardurapean baitaude indarkeria sexistaren biktimei arreta eskaintzeko zerbitzuak, baita babesgabetasun egoeran dauden adingabeen arreta ere, haur eta gazteekin zuzenean esku hartzen duen neurrian, horien jatorrizko familiak aldi baterako nahiz betiko behar bezala artatzeko egoeran ez daudenean, zenbaitetan indarkeria sexista zuzenean jasan dutela ere kontuan hartuta.

B. **Beste departamentu batzuk**, egiten duten lanaren barruan indarkeria hori prebenitzeko ekintzak egin ditzaketenak. Ildo horretan, bereziki garrantzitsuak lirateke honako politika hauek:

› Kirola, eskola kirola foru eskumena den neurrian.

› Gazteria, Gipuzkoako gazte guztiei zuzenduta dauden neurrian.

› Sustapen ekonomikoa, Lurraldean finkatutako unibertsitateekin lankidetzan unibertsitateko ikasleei zuzendutako programak sustatzen dituen neurrian. Horrez gain, departamentu honek, enpresekin dituen harremanak baliatuz, lurraldeko enpresetan jazarpen sexista prebenitzeko neurriak bultza ditzake.

› Landa garapena eta lurralde oreka, landa inguruneko neskak beren inguruneari lotzeko orduan berdintasuna eta indarkeria matxistaren prebentzioa elementu garrantzitsuak izan daitezkeen neurrian, bertan genero rolak errotuago baitaude.

› Garapenerako lankidetza, lurralde historikoan gaiaren inguruko sentsibilizazio eta heziketa kanpainak egiten dituen eta beste herrialde batzuetako entitateekin zuzeneko lankidetza programak garatzen dituen neurrian.

C. **Komunikazio Zuzendaritza Nagusia** eta **Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentua**; lehenengoa, komunikazio politikaren jarraibideen diseinu, plangintza, betearazpen eta ezarpenaren arduraduna den neurrian; eta bigarrena, berari dagokiolako Foru Aldundiak gizartearekiko gauzatu nahi dituen komunikazio ekimenak zehaztea, homologatzea eta garatzea, hala nola, web orria, sare sozialak, zerbitzu kartak eta abar. Gai hori zeharkakoa ez ezik funtsezkoa ere bada indarkeria matxistaren inguruko kontzientzia soziala sortzeko.

## 2. Lurralde esparrua

Alde batetik, kontuan izan behar da indarkeria sexistaren biktimei gizarte arreta ematea udalei nahiz Foru Aldundiari dagokiela. Lehenengoek lehen mailako arreta emateko ardura dute, udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuen bitartez[7]; eta foru administrazioak, aldiz, bigarren mailako zerbitzuak eman eta kudeatzeko ardura du, oinarrizko zerbitzuek bertara egiten baitute egokia den bideratzea[8]. Horrez gain, udaleko gizarte zerbitzuak kasuaren arduradunak dira biktima egiten duen ibilbidean zehar, eta, horregatik, horiekin koordinatzea funtsezkoa da.

Beste alde batetik, eta emakumeen aurkako indarkeriaren jatorria egiturazko genero desberdintasun historikoetan egonik, beharrezkoa da indarkeria horren aurka borrokatzeko politika diseinatzea berdintasunaren aldeko politika publikoen barruan.

Horiek horrela, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko *Aurre!* Foru Planak berdintasunaren eta gizarte zerbitzuen arloko lana lurralde mailan antolatzea sustatu nahi du, bai toki esparruan, bai foru esparruan. Era horretan, lurralde esparruan gizarte arretari koherentzia eman ahal izango litzaioke, hari buruzko ikuspegi partekatua sustatuz eta esku-hartze guztien eraginkortasuna eta efizientzia hobetzen dituen lan sare sendoa ahalbidetuz. Horrela bakarrik aurrera egin ahal izango dugu iraunkortasunez berdintasunean eta indarkeria sexistaren aurkako borrokan.

[7] Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 27.2. a) artikulua.
[8] Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 27.2.b) artikulua.

### 3. Euskal Autonomia Erkidegoko esparrua

Emakumeen aurkako indarkeriaren aurka borrokatzeko politika ez dagokie soilik gizarte zerbitzuei. Berez, indarkeria horri osotasunez heltzeko, Administrazioaren arlo ugari eta maila guztiak behar dira.

Horregatik, 2001eko urrian, Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko I. Akordioa sinatu zen, eta 2009ko otsailean Erakundeen arteko II. Akordioa sinatu zen, lehenengoaren edukiak funtsean arauen aldaketen ondoriozko egoera berrietara egokitzeko eta ezarritako protokoloak nahiz sinatutako lankidetza hitzarmenak osatzeko.

Erakundeen arteko II. Akordioaren helburua etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza eskaintzen dieten EAEko erakundeen arteko koordinazioa hobetzea da, osoko babes eta arreta emateko osasun eta polizia arloan, nahiz arlo judizialean eta sozialean. Edozein modutan ere, esparru akordioa da, sinatu duten erakundeek hartutako konpromisoak eta ezarritako jardun-protokoloak jasotzen dituena, emakumeen aurkako indarkeriaren aurka esku hartzeko esparru guztietan. Esparru akordioa izanik, aurreikusten da gerora garatu, zehaztu eta egokitu egingo dela, esku hartzeko esparruen arabera.

Emakunde erakundeari dagokio Erakundeen arteko II. Akordioaren koordinazioa eta jarraipena egitea Jarraipen Batzordearen bidez, arlo politikoan zein teknikoan, eta bertan parte hartzen dute akordioa sinatu duten erakunde guztiek:

- ✓ Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia
- ✓ Osasunaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren Saila
- ✓ Herritarren segurtasunaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren Saila
- ✓ Justiziaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren Saila
- ✓ Gizarte zerbitzuen arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren Saila
- ✓ Gizarte bazterketaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren Saila
- ✓ Enpleguaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren Saila
- ✓ Etxebizitzaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren Saila
- ✓ Hezkuntzaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren Saila
- ✓ Arabako Foru Aldundia
- ✓ Bizkaiko Foru Aldundia
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundia
- ✓ Eudel-Euskadiko Udalen Elkartea
- ✓ Abokatutzaren Euskal Kontseilua

- ✓ Medikuen Euskal Kontseilua
- ✓ Arartekoa (nahiz eta bere garaian akordioa ez sinatu, koordinazio eta jarraipen espazioetan parte hartzen du)

Emakunde da Batzordeko burua, Institutua sortzeko Legean berak nahiz Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean zein Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planean emakumeen aurkako indarkeria[9] emakumeek jasaten dituzten genero ezberdintasunen neurriz gaineko adierazpen moduan definituta dagoen neurrian; halaber, bertan ezarri da indarkeria hori errotik kendu behar dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen duten politiken bidez.

Hala bada, *Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! foru plan* honen barruan, foru esparruan garatutako lanak bat egiten du erakundeen arteko akordioekin. Gainera, gizarte arloaren lurralde esparruko antolaketa erreferentziazko eredua izan liteke beste lurralde batzuetarako, Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen eremuan.

Azkenik, eta **esku hartze mailei** dagokienez, esan behar da indarkeria sexistaren aurkako politika publikoek betidanik banatu egin izan dituztela, argi eta garbi, prebentziozko jarduerak (normalean gazteei zuzendutakoak), berdintasuneko arloen mendekoak, eta biktimen arretarako zerbitzuak, gizarte zerbitzuen mendekoak. Alabaina, esku hartze soziosanitarioak prebentzioaren eta arretaren arteko banaketa hori apurtu nahi duten jarduera eredu batzuk garatu ditu, bi maila horien artean dinamika jarraitua dagoela ulertzen baitute.

Plan honetan prebentzioaren (Berdintasuna) eta arretaren (Gizarte Politika) arteko banaketarekin jarraitzen bada ere, hainbat neurri proposatzen dira banaketa organiko hori gainditzen joateko: batetik, planaren koordinazioan, Berdintasuneko Zuzendaritzaren eta Gizarte Politikako Departamentuaren artean egiten baita; eta, bestetik, prebentziozko jarduerak gehitzean, departamentu desberdinak inplikatuta daudelarik.

Ondoren zehazten den eskema hainbat proiektu pilotutan ezar daitekeen laneko ikusmuga bat da, eta horren bitartez politika integralak eraiki nahi dira prebentziozko eta arretako jarduerak koherenteak eta osagarriak izan daitezen.

[9] GFAren esparru terminologikoan *indarkeria sexista*

**Ahalduntzea**
**Esku hartzearen jomuga eta metodologia gisa**



## 2.2. Esku hartzeko arloak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak (III. Titulua, VII. Atala) eta geroago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Arauak (VI. Titulua, V. Atala) ezarri duten bezala, indarkeria matxistaren aurkako borrokak berekin du hainbat arlotan neurriak hartzea. Zehazki, ondorengo lan-ildoak zehaztu dira, euskal administrazio publikoek hel diezaieten:

- Prebentzioa eta sentsibilizazioa
- Ikerketa
- Prestakuntza[10]
- Arreta eta babesa

Horrela, *Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Planak* jarduketa ardatz hauek planteatzen ditu. Ez dira alor estankoak, elkarren osagarriak baizik, eta elkarrekin lotutakoak. Alabaina, parte hartzen duen foru arlo bakoitzak pisu espezifiko handiagoa izango luke batzuetan edo besteetan. Berez, gizarte-zerbitzuetako arloetako lanak arretara zuzenduta egon ohi dira, eta berdintasun arloetako eta haur eta gazteekin lan egiten duten arloetako lanak prebentziora eta sentsibilizaziora bideratuago daude.

Behean txertatu dugun taulan, indarkeria sexistaren aurkako borrokan parte hartuko luketen foru politiken intentsitate maila hori islatu nahi izan dugu, lan arloei dagokienez:

| | **Prebentzioa eta sentsibilizazioa** | **Ikerketa** | **Prestakuntza** | **Arreta eta babesa** |
|---|---|---|---|---|
| **Berdintasuna** | | | | |
| **Kirolak** | | | | |
| **Gazteria** | | | | |
| **Ekonomia Sustapena** | | | | |
| **Bizikidetza/Giza Eskubideak** | | | | |
| **Landa garapena** | | | | |
| **Gizarte politikak:** ***Arreta indarkeria matxistaren biktimei*** | | | | |
| ***Gizarte politikak: Arreta babesgabetasun egoeran dauden adingabeei*** | | | | |

[10] Etorkizunean abian jarriko den berdintasuneko prestakuntza programarekin (JAKITUN) bat eginez, zeinaren zeregin nagusia izango baita lurraldeko berdintasuneko prestakuntza egituratzea.

Gainera, funtsezkoa da **proiektu pilotuak abian jartzea** esku hartzeko arlo guztiei lotzea. Horretarako, ezinbestekoa izango da indarkeria matxistaren aurkako borrokaren inguruko materialean dauden esperientzia interesgarri eta berritzaileak identifikatu eta ezagutzea eta, halaber, esperientzia pilotuak abian jartzea, gure ingurune zehatzera egokitu, transferitu eta sistematizatzea ahalbidetzeko.

## 2.4. Lan esparru orokorra

Azkenik, eta eskema orokor moduan, grafiko bat jaso dugu behean, lan esparru orokorraren proposamena irudikatzen duena, irudi bidez ulertzea erraztearren. Proposamenean, lan arloak nahiz esku hartzeko esparruak eta foru jarduketaren eremuak jaso eta elkarri lotuta daude:


Lan markoa
arreta
Ikerketa eta prestakuntza
prebentzioa –sentsibilizazioa.
Ikerketa eta prestakuntza
kultura
gazteria
lurralde oreka
lankidetza
beste departamentu batzuk
ekonomia
sustapena
kirolak
bizikidetza
mendekotasuna
Adingabeen babesa
Gizarte politikak
Indarkeria sexistaren arreta
Indarkeria sexistaren batzorde politiko-teknikoa
Berdintasunerako Organoa
foru administrazioa
tokiko administrazioa
udaletako gizarte zerbitzuak
udaletako berdintasun arloak
erkidego mailako administrazioa
erakundeen arteko II. Akordioa
Emakunde

# III.- Aurre!, Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Lehenengo Foru Plana

Egindako azterketan oinarrituta, eta egungo abiapuntua zein lan egiteko esparrua kontuan hartuta, 2016-2019 aldirako plangintza estrategikoa aurkeztuko dugu jarraian. Bertan, helburu estrategikoak eta lan ildoan jaso dira.

Hortik abiatuta, eta inplikatutako departamentuen laguntzarekin, plana prestatu da proposatutako ekintzen egokitasuna kontuan hartuta.

Helburu estrategikoak jadanik adierazitako esku hartzeko esparruen arabera antolatu dira:

- ✓ Ikerketa
- ✓ Sentsibilizazioa eta prebentzioa
- ✓ Prestakuntza
- ✓ Arreta

Ondoren aurkezten dugu *Aurre!, Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Lehenengo Foru Plana,* emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko Gipuzkoa lortzea helburu duena. Plana 2016ko uztaila eta urria bitartean berrikusi eta egiaztatu da. Egiaztatze prozesu horretan parte hartu dute foru departamentuek, udalek, berdintasuneko eta gizarte zerbitzuetako udal teknikariek, elkarte feministek eta emakumeen elkarteek. Horiez gain, Emakunderen ekarpenak jaso dira.

Egiaztatze aldi horretan ere emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokan inplikatuta dauden eragileek parte hartu ahal izan dute, esku hartze eremu eta arlo ezberdinetan egin beharreko lana aberastu eta osatu duten ekarpenak eta orientazioak bilduz.

Plana ondorengo puntu hauen inguruan antolatuta dago:

- › Jardun eremuak
- › Planaren helburu orokorra eta eremu bakoitzaren helburu orokorrak
- › Eremu bakoitzarekin lotutako helburu espezifikoak
- › Helburu espezifiko horiek lortzeko burutu daitezkeen jarduketak
- › Plana gauzatzeko ardura duen foru zuzendaritza edo departamentua

Honako hauek dira Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! foru planaren helburuak:

**Planaren helburu orokorra**

Indarkeria matxistaren molde guztiak ikusaraztea eta indarkeria sexistari heltzea eskumen esparru ezberdinetan politika eta estrategia berritzaileak ezarriz, Gipuzkoa emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko lurralde bihur dadin.

**Eremu bakoitzaren helburu orokorrak**

| | |
|---|---|
| **Prestakuntza** | Planaren garapenean parte hartzen duten foru eta udal esparru desberdinetako langileen berdintasun alorreko gaikuntza bermatzea. |
| **Ikerketa** | Lurraldeko indarkeria sexistaren inguruko datu eta azterketa objektibo, kontrastatu eta eguneratuak izatea, arazoa hobeto ezagutu ahal izateko, eta, ondorioz, geroz eta zehatzagoak izateko prebentzio, prestakuntza nahiz arreta arloan gauza daitezkeen jarduerak. |
| **Prebentzioa eta sentsibilizazioa** | Berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako aldaketak eta jarrerak sustatzea, bereziki lurraldeko gazteen artean.<br>Mezu argiak sortu eta zabaltzea, indarkeria matxistaren molde ezberdinak ikusezin egiteko, normalizatzeko, minimizatzeko edota justifikatzeko joerak indargabetu ahal izateko. |
| **Arreta** | Indarkeria sexistari aurre egiten dioten emakumeei arreta egokia ziurtatzea hainbat jarduera abian jarriz, horien bitartez egoera horretatik ahalduntzea lortuta ateratzeko aukera izan dezaten, eta gizartearen aintzatespena eta indarkeria sexistaren biktima gisa urratutako eskubideen berreskuratzea eta leheneratzea sustatu dadin. |

## Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Plana

## PRESTAKUNTZA

Helburu orokorra: Planaren iraunkortasuna bermatzearren, behar bezala eta maila guztietan trebatutako langileak edukitzea, bai Foru Aldundiko langileak bai foru zerbitzuetan lan egiten duten kanpoko langileak nahiz arreta eta prebentzioko udal langileak.

- Prestakuntzaren bidez lortu behar da GFAko langileek ikuspegi koherente eta bateratu bat erabiltzea, ideien eztabaida eta etengabeko eguneratzea sustatuz bai oinarrizko mailan (langile guztiena), bai maila espezializatuan (prebentzioko de arretako politikak diseinatu eta ezartzen dituzten langileena).
- Prestakuntzaren bidez bermatu behar da kanpora ateratako zerbitzuetako langileak GFAren kontzeptualizaziora eta terminologiara egokitzea, kontratazioan jasotako berdintasuneko klausulen bitartez eta langile horien jarduera foru politikekin bat etorriko dela bermatuko duen prestakuntzaren bitartez.
- Planaren barruan prestakuntzari dagokion zatia, oraindik egiteko dagoen berdintasuneko prestakuntza planaren (JAKITUN) bitartez antolatuko da, eta bere helburu nagusia izango da lurraldean eskaintzen den berdintasuneko prestakuntza eskaintza egituratzea.

| P. Prestakuntza | | | |
|---|---|---|---|
| **Helburuak** | **Kod.** | **Ekintzak** | **Arduradunak** |
| P1. Indarkeria matxistaren emakume biktimei arreta emateko atalei atxikitako foru- nahiz udal-langileek berdintasunaren eta indarkeria matxistaren inguruko **berariazko gaikuntza hobetzea**. | P1.E1 | Berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko berariazko ikastaroak sartzea **departamentuetako prestakuntzaplanean**. | Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia<br><br>Gizarte Politikako Departamentua |
| | P1.E2 | Prestakuntza-ekintzako prozesu bat abian jartzea, **gizarte larrialdietako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokako ataleko langile teknikoei** zuzenduta, emakumeei ahalduntzearen ikuspegitik ematen zaien arreta hobetzearren. | Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia<br><br>Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | P1.E3 | Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloan prestakuntza plan bat abian jartzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko **foru zerbitzuetan lan egiten duten langileei** zuzenduta, intersekzionalitatearen ikuspegia eta era askotako kolektiboekin esku hartzeko moduak gehituz. | Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia<br><br>Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | P1.E4 | **Berdintasun klausulak** gehitzea, bereziki kaudimen teknikoari eta gauzatzeko baldintzei buruzkoak, indarkeria sexistaren biktimei arreta ematen dieten foru zerbitzuak zuzenean ematen dituzten erakundeekin sinatzen diren **kontratuetan**, eta horien jarraipena egitea. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | P1.E5 | Urtero **prestakuntzako lurralde plan** bat egitea berdintasuneko eta indarkeria sexistaren prebentzioari buruzko ikastaroak eginez, indarkeria sexistaren emakume biktimei arreta emateaz arduratzen diren **udal langileei** zuzendua berariaz. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |
| P2. Berdintasunean **oinarrizko gaikuntza sortzea**, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzio alorrean lan egiteko ardura duten foru-langileentzat. | P2.E1 | Urteko **prestakuntzako foru planean** gehitzea berdintasunari eta indarkeria sexistaren prebentzioari buruzko berariazko ikastaroak, parte hartzen duten ataletako langileei berariaz zuzenduta. | Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia |
| | P2.E2 | Konprometitutako foru langileek berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren inguruko prestakuntza ekintzetan **parte har** dezaten sustatu eta bultzatzea. | Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia |

## Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Plana

## IKERKETA

Ikerketa eremuaren helburu orokorra: Gipuzkoako Lurralde Historikoko indarkeria matxista eta sexistaren inguruko datu eta azterketa objektibo, kontrastatu eta eguneratuak izatea, arazoa hobeto ezagutu ahal izateko, eta, ondorioz, geroz eta zehatzagoak izateko prebentzio nahiz arreta arloan gauza daitezkeen jarduerak.

- Ikerketa tresna bat izango da iritzia sortzen duten eta Foru Aldundiaren jarduera esparrutik harantzago indarkeria matxistaren prebentzioan eta biktimen arretan diharduten eragile estrategiko guztiekin hausnarketa eta etengabeko eztabaida ahalbidetzeko.
- Ikerketak aukera eman behar du geroz eta hobeto ezagutzeko zer motatako indarkeria matxista dagoen Gipuzkoan, zer nolako bilakaera duten indarkeria mota horiek esparru diferenteetan eta zer erantzun ematen zaion biztanleriaren sektore ezberdinetatik politika publikoak hobetzearren.
- Lurraldeko indarkeriaren eta genero desberdintasunen inguruan esperientzia akademikoa eta profesionala izateagatik gaitasun handiena duten eragileen artean egindako hausnarketatik eta ezagutza eraikitzetik aterako dira ikerketa lerroak.

| I. Ikerketa | | | |
|---|---|---|---|
| **Helburuak** | **Kod.** | **Ekintzak** | **Arduradunak** |
| I1. Bermatzea lurraldean badaudela hainbat **mekanismo aztertzeko**, batetik, indarkeria matxistako egoeren bilakaera, eta, bestetik, elkarteetatik nahiz erakundeetatik ematen zaien erantzuna. | I1.E1 | Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko *Think Tank* bat abian jartzea eragile estrategikoekin (elkarteak, unibertsitatea, erakundeetako arduradunak, adituak), hausnarketa partekatua egiteko, balizko ikerketa lerroak identifikatzeko, eta indarkeria matxistaren zergatiak, agerpenak eta emakume biktimen arreta hobeto ezagutzeko. Etorkizunari begira, gaiaren inguruko kluster modura eratu dadin. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | I1.E2 | Indarkeria sexistaren emakume biktimei arreta emateko zerbitzuen **jarraipenaren eta ebaluazioaren azterlan** bat egitea. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | I1.E3 | Indarkeria matxistaren biktimek jasaten duten eskubideen **urraketa aitortzeko, ordaina** eskaintzeko eta **urratutako eskubideak** leheneratzeko ekimenak diseinatzea eta abian jartzea. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |
| | I1.E4 | **Lan alorreko** jazarpen sexistari eta sexu jazarpenari erantzuteko **protokolo** aktiboak ezartzea sustatzearren, ezar daitezkeen **neurri fiskalak** aztertzea. | Ogasun Zuzendaritza Nagusia |
| | I1.E5 | Indarkeria sexista **baloratzeko tresnekin** loturiko jardunbide egokiak identifikatzea, EAEn indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen arreta hobetzeko erakundearteko koordinazioaren barruan, eta bereziki Emakunderekin lankidetzan. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa<br>Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| I2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren fenomenoaren ezagutzan aurrera egitea, gertatzen den esparru guztietan eta adierazten den forma guztietan. | I2.E1 | Foru Aldundiaren eskumeneko alorrei dagokienez (gazteria, mugikortasuna, lurralde oreka, giza eskubideak eta bizikidetza, eta abar), zehaztuko diren **berariazko azterketa lerroak** garatzen hastea. | Gazteria eta Kiroleko Zuz. Nag.<br>Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuz. Nag.<br>Lurralde Orekako Zuz. Nag.<br>Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuz. Nag. |
| | I2.E2 | Indarkeria arriskuaren adierazleak dituen **"alerta sistema bat"** prestatzea, bultzatzen diren lankidetza proiektuen arrakasta hobetzeko. | Lankidetzako Zuzendaritza Nagusia |
| | I2.E3 | Haurren babeseko foru zerbitzuek artatzen dituzten haur eta nerabeengan indarkeriak duen eraginari buruzko **diagnostikoa** egitea. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | I2.E4 | Emakumeek foru eskumenekoa den espazio publikoan (*Lurraldebus* autobusak, geltokien kokalekua, bidegorriak, etab.) **segurtasunik ezaz** eta ahultasunaz duten **pertzepzio subjektiboa** aztertzea. | Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | I2.E5 | Bidegorrietan generoaren ikuspegia sartzeko hartu diren neurrien eraginaren **ebaluazioa** egitea. | Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia |
| | I2.E6 | EAE barruko eta EAEtik kanpoko **esperientzia arrakastatsuak** aztertu eta ezagutzea, indarkeria matxistaren alorrean prebentzioa eta arreta hobetu ahal izateko. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa<br>Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | I2.E7 | Gizonezkoei zuzendutako indarkeriaren prebentzio estrategiei buruzko ikerketa egitea. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |

## Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Plana

## SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

Sentsibilizazioaren eta prebentzioaren helburu orokorra: Berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako aldaketak eta jarrerak sustatzea, bereziki lurraldeko gazteen artean.

- Prebentzioak aukera eman behar du ikusezin bihurtutako eta normalizatutako indarkeria azaleratzeko, horretarako gizartearen eta erakundeen aldetik biktimekiko laguntza kultura bat sortu behar da.

- Prebentzioak indarkeria eragiten duenarengan ezarri behar du erantzukizuna, eta indarkeria matxista justifikatzeko edota minimizatzeko modu ezberdinen aurka kokatu behar du argi eta garbi.

| PS. Prebentzioa eta sentsibilizazioa | | | |
|---|---|---|---|
| **Helburuak** | **Kod.** | **Ekintzak** | **Arduradunak** |
| PS1. Indarkeria sexistaren eta indarkeria sortzen duten genero ezberdintasunen aurrean **gizarte gaitzespena handitzea**, Foru Aldundiak sustapen eta eredu lana eginez. | PS1.E1 | Gizartea **sentsibilizatzeko ekintzak** egitea, hausnarketa, eztabaida eta jabetzea sortzen dituztenak generoezberdintasunei eta indarkeria sexistari dagokienez. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa<br><br>Komunikazio Zuzendaritza Nagusia |
| | PS1.E2 | Emakumeek jasaten duten indarkeria matxistaren aurkako **mezu instituzionalak** maila gorenean sendotzea, bai diskurtsoari eta sinboloei dagokienez, bai alderdi betearazleari dagokionez, eta mezu horien jarraitutasuna bermatzea, indarkeria sexistaren kasu larrienez harago. | Komunikazio Zuzendaritza Nagusia<br><br>Diputatu Nagusiaren Alorra |
| | PS1.E3 | Indarkeria matxistaren biktimek bizirauteko eta aurrera ateratzeko egiten duten borroka aitortzeko eta **ordaina eskaintzeko** ekintzak egitea. | Diputatu Nagusiaren Alorra |

| | | | |
|---|---|---|---|
| PS2. Lurraldean, emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztiei **foru erantzun publikoa hobetzea**. | PS2.E1 | GFAren Estilo Liburuan **foru jarraibideak** sartzea komunikazio kanal guztiei zuzendutako estereotipo sexistak errepikatzen dituen hizkera saihesteko, kontuan hartuta EAE mailako orientazio orokorrak. | Komunikazio Zuzendaritza Nagusia |
| PS3. Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko eta horren aurrean sentsibilizatzeko **funtsezkoak diren gizarte eragileekin elkarrizketa egiteko bideak zabaltzea eta sendotzea**. | PS3.E1 | Indarrean dauden **elkarrizketa-bideak** erabiltzea, sendotzea eta, egokia bada, bide berri batzuk sortzea, emakumeen elkarteak indarkeria sexistaren emakume biktimei arreta emateko foru baliabideei buruz informatuta manten daitezen, prebenitu, hauteman, lagundu eta bideratzeko funtsezko eragileak izan daitezkeen neurrian. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |
| | PS3.E2 | **Emakumeen etxeak** indartzea, indarkeriaren emakume biktimak hauteman, prebenitu eta bideratzeko tokiko erreferentzia gisa. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |
| | PS3.E3 | Lurraldeko **elkarte feministei eta emakumeen elkarteei zuzendutako diru laguntzen** esparruan berariazko ildo bat ezartzea emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko eta horren aurrean sentsibilizatzeko proiektu berritzaileak babestearren. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |
| PS4. Emakumeek eta LGTBI kolektiboek **lan esparruan** jasaten duten indarkeria matxistari egokitasunez heltzea sustatzea, bai foru administrazioan bertan, bai Gipuzkoako enpresetan, eta baita ere genero indarkeriaren biktima diren GFAko langile emakumeek. | PS4.E1 | Foru administrazioaren barruan jazarpen sexista eta sexu jazarpena prebenitzeko **protokoloa berrikustea, eta jarraipena egiteko mekanismoak abian jartzea**. GFA partaide den **enpresa publikoei** laguntza ematea lan esparruko jazarpen sexista eta sexu jazarpena prebenitzeko eta arazoari aurre egiteko protokoloak sortu eta abian jar ditzaten. | Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia |
| | PS4.E2 | **Lurralde mailako protokolo eredu bat** sortzea tokiko administrazioan jazarpen sexista eta sexu jazarpena prebenitzeko. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |
| | PS4.E3 | **Protokolo** aktiboak abian jarri zein horien jarraipena eta ebaluazioa sustatzea, merituak emanez edo beste bide batzuk baliatuz, **lan esparruan** jazarpen sexistari eta sexu jazarpenari erantzuna emateko. | Ogasun Zuzendaritza Nagusia<br>Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritza Nagusia<br>Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia |
| | PS4.E4 | Genero indarkeriaren biktima diren GFAko langileen kasuan jarraitu beharreko **barne prozedurak** diseinatzea. | Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia |

| | | | |
|---|---|---|---|
| PS5. **Berdintasunezko kirol praktika, indarkeria sexistarik gabea**, sustatzea. | PS5.E1 | Berdintasunean sentsibilizatzeko eta prestatzeko jarduerak antolatzea, Gipuzkoan eskola kirolarekin konprometitutako langileei eta gurasoei zuzenduta. | Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia |
| | PS5.E2 | **Berdintasun klausulak** gehitzea eta gero aztertzea, bereziki kaudimen teknikoari eta gauzatzeko baldintzei buruzkoak, lurraldean kirol praktika sustatzeko diru laguntzen deialdietan eta sinatzen diren kontratuetan. | Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia |
| | PS5.E3 | **Berdintasun klausulak** gehitzea, bereziki kaudimen teknikoari eta emakumeen nahiz LGTBI kolektiboen aurkako **indarkeria matxistaren prebentzioari** buruzkoak, gauzatzeko baldintzetan, diru laguntza deialdietan eta lankidetza arloan sinatzen diren kontratuetan. | Lankidetzako Zuzendaritza Nagusia |
| | PS5.E4 | **Sentsibilizatzeko kanpaina** efikaz eta eraginkorrak egitea, berdintasunezko eta indarkeria sexistarik gabeko **kirol praktika** sustatzeko. | Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia |
| | PS5.E5 | **Berariazko programak** abian jartzea, kirolean genero estereotipoak gainditu eta neskak arlo horretan ahalduntzeko. | Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia |
| PS6. Berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kontra sentsibilizatzea berariaz sustatzen duten **kultura- eta arte-adierazpenak sustatu eta ikusgarri egitea**. | PS6.E1 | Indarkeria sexistari aurre egiteko edukiak sartzea, Foru Aldundiaren ekipamenduen (KMK) eta **kultura programazioen** bidez. | Kultura Zuzendaritza Nagusia |
| | PS6.E2 | Berdintasunaren sustapena eta indarkeria sexistaren aurkako sentsibilizazioa bultzatzea, **kulturaren alorreko diru laguntzak** emateko deialdien bidez. | Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia<br>Kultura Zuzendaritza Nagusia |
| PS7.**Haur eta nerabeak sustatu eta artatzeko foru politikak berdintasun balioak bultzatu** eta indarkeria matxista prebenitzen lagunduko duela bermatzea. | PS7.E1 | Foru Aldundiak sustatzen dituen **udalekuetan** (*udalekuak* eta *gazte oporraldiak*), berdintasunarekin eta indarkeria sexistarekin zerikusia duten jarduerak gehitzea. | Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia |
| | PS7.E2 | **Berdintasun klausulak** gehitzea, bereziki kaudimen teknikoa eta gauzatzeko baldintzei buruzkoak, Foru Aldundiak antolatzen dituen udalekuak kudeatzen dituzten erakundeekin sinatzen diren **kontratuetan**. | Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | PS7.E3 | Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta indarkeria sexistaren prebentzioa lanerako ildo estrategiko bezala gehitzea Lurraldearen eremuan **udalekin** antolatzen den **lan programan** (gazteguneak, ludotekak,…). | Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia |
| | PS7.E4 | "**Gipuzkoan gazte**" ataria eta beste bitarteko batzuk, hala nola, autobus publikoen pantailak, era aktiboan erabiltzea **berdintasunaren aldeko** eta indarkeria sexistaren aurkako **balioak** eta gazte jendearen ereduak **sustatzeko**. | Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia |
| | PS7.E5 | Udaletako berdintasuneko eta gazteriako zerbitzuen arteko lankidetza lantzea Beldur Barik bezalako ekimenak bideratu ahal izateko. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa<br>Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia |
| | PS7.E6 | **Berdinbidean** programa indartzea, **udal txikiek** baliabide gehiago izan ditzaten landa eremuko gazteen artean berdintasuneko balioak eta indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |
| | PS7.E7 | **Beldur Barik** programaren esparruan, indarkeria matxista prebenitzeko gazte jendearekin **proiektu pilotu** bat diseinatu, abian jarri eta sistematizatzea Gipuzkoako udalerri batean (Beldur Barik erakundeen arteko programarekin koordinatuta), produktu ukigarri eta hedagarria sortu eta gerora beste udalerri batzuetan abian jar daitekeena. | Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia |
| PS8. **Indarkeria sexistarik gabeko** eta emakumeen giza eskubideen aldeko **bizikidetza** sustatzea. | PS8.E1 | Aniztasun Planean sartzea **LGTBI** kolektiboaren aurkako diskriminazioaren eta indarkeria matxistaren inguruko sustapena eta sentsibilizazioa. | Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia |
| | PS8.E2 | **Landa eremuko** udalerrietan haur eta gazteei zuzendutako ekimenak abian jartzen laguntzea, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako balioak sustatzeko. | Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia |

## Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Plana

## ARRETA

Arretaren helburu orokorra: Indarkeria sexistari aurre egiten dioten emakumeei arreta egokia ziurtatzea hainbat jarduera abian jarriz, horien bitartez egoera horretatik ahalduntzea lortuta ateratzeko aukera izan dezaten, eta gizartearen aintzatespena eta indarkeria sexistaren biktima gisa urratutako eskubideen berreskuratzea eta leheneratzea sustatu dadin.

- Arretaren helburua izango da artatutako pertsona guztiek aitortzea indarkeria egoeratik ateratzeko ahalegina egin dutela, modu horretan biktimen ikuspegi estereotipatuak apurtuz.
- Beraz, arretaren bidez lortu behar da indarkeria matxistaren biktimek jasan duten eskubideen urraketa aitortzea, ordaina eskaintzea eta urratutako eskubideak leheneratzea.

| A. Arreta | | | |
|---|---|---|---|
| **Helburuak** | **Kod.** | **Ekintzak** | **Arduradunak** |
| A1.Foru esparruan **barne koordinazioa hobetu eta indartzea**, indarkeria matxistaren emakume biktimei ahalduntzeko arreta eraginkorra bermatzearren. | A1.E1 | Indarkeria matxistari aurre egiteko foru politika koordinatzeko **batzorde politiko-teknikoa** abian jarri eta bere eginkizunetan indartzea. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa<br>Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | A1.E2 | Batzorde politiko-teknikoa berdintasunean eta indarkeria sexistan **espezializatutako laguntza teknikoaz** hornitzea, aholkua eman eta burutzen den lanaren jarraipena eta sistematizazioa egin ditzan. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |
| | A1.E3 | **Haurren babesgabeziaren** balorazioetan indarkeria sexista **hautemateko protokoloak** indartzea. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | A1.E4 | Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuaren (HBSA bereziki) eta Gizarte Larrialdiko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Atalaren artean **batera esku hartzeko** prozedurak indartzea. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | A1.E5 | "Balora" tresna egokitzeko proposamena egitea Eusko Jaurlaritzari, kontuan hartuta, batetik, GFAren esparru kontzeptuala eta terminologia, eta, bestetik, emakume biktimen seme-alabak genero indarkeriaren biktimatzat hartzeko egin diren lege aldaketak. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| A2. Arreta emateko foru zerbitzuetan **plangintza, jarraipen eta etengabeko ebaluazioa egiteko mekanismo egonkorrak hobetzea**, esku-hartzea berdintasunaren ikuspegitik egiten dela eta emakumeak ahalduntzeko balio duela ziurtatzeko. | A2.E1 | Indarkeria sexistaren biktimak diren emakumeei arreta emateko foru zerbitzuen **urteko jarraipena** egitea. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | A2.E2 | **Indarkeria sexistaren emakume biktimen seme-alabek** esku hartze planean bere beharren berariazko balorazioa modu sistematiko eta egituratuan jasota izango dutela bermatzea. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | A2.E3 | **Proiektu pilotu** bat garatzea indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeekin berariaz lan egiten duten elkarteekin, emakumeen norberaren eta taldekako ahalduntzea hobetzearren, beren autonomia pertsonala erreparatzeko eta berrezartzeko esparruan. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa<br><br>Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | A2.E4 | Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeei arreta emateko zerbitzuetan ahulenak diren taldeak eta **diskriminazio anizkoitza** jasaten duten emakumeak kontuan hartzen dituzten neurriak hartzea, kontuan hartuta Gipuzkoako Gizarteratze Plana 2016-2020 Elkar-EKIN. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | A2.E5 | Foru Aldundiak sustatutako udalekuetako (udalekuak eta gazte oporraldiak) hezitzaile taldeen esku **jarduera protokolo** bat eta bitartekoak jartzea, gerta daitezkeen indarkeria matxistako kasuetan esku hartzeko. | Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia |
| | A2.E6 | Indarkeria matxistaren prebentzioan eta horren aurreko sentsibilizazioan lan egiten duten beste foru departamentu eta eragile batzuekin elkarlanean aritzea, hauteman ditzaketen arreta-beharrei erantzuna eman ahal izateko. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | A2.E7 | Gainerako lurraldeekin eta Emakunderekin batera aztertzea eta baloratzea beharrezkoa ote den indarkeria sexistaren biktimei zuzendutako telefono bidezko arreta zerbitzua **lan alorreko jazarpen sexistaren** biktimei ere zabaltzea, edo, ez dagoen kasuan, sortzea. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |

| | | | |
|---|---|---|---|
| A3.**Erakundeen arteko koordinazioa** Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin sendotzea. | A3.E1 | Udalerrietako berdintasun ataleko eta gizarte zerbitzuetako langileen artean elkarlanerako espazio bat sortzea, elkar ezagutu eta elkarri laguntzeko, zerbitzuari buruzko informazioa eguneratze aldera, eta indarkeria sexistaren egoerei arreta emateko lan-eredu bat, emakumeak ahalduntzen lagundu eta beren bizitza era autonomoan gobernatzeko gaitzen dituena, adostera begira. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa<br>Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | A3.E2 | Udal mailan erakundeen arteko koordinaziorako protokolo eredu bat sortzea, indarkeria sexistaren biktimen arreta hobetzea bermatuko duena. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa<br>Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | A3.E3 | Berdinsarean -indarkeriaren alorreko berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako euskal udalerrien sarea- egiten den lana koordinatzea eta indartzea, eragina duelarik Gipuzkoako toki administrazioan. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |
| A4.**Koordinazio instituzionala indartzea, Lurralde eremuan eta EAE eremuan**. | A4.E1 | Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko **erakundeen arteko II. Akordioan** sortu den jarraipen batzordean era aktiboan parte hartzea, alderdi politikotik zein teknikotik, Emakundek koordinatuta. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | A4.E2 | **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordean** era aktiboan parte hartzea (alderdi politikotik zein teknikotik), Emakundek koordinatuta, eta baita aipatutako institutuak sustatzen dituen erakunde arteko beste koordinaziogune batzuetan ere. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |
| | A4.E3 | Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioan **lurraldeko jarraipen batzorde** bat sortzea bultzatzea, alderdi politikotik zein teknikotik. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia<br>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |
| | A4.E4 | Emakunderekin lankidetzan aritzea indarkeria sexistaren emakume biktimen arretarako gutxieneko estandarrak bateratzeko NBEren jarraibideak kontuan hartuta. | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |
| | A4.E5 | Emakundek eta Eudelek sustatuta, ***Berdinsarea*-Berdintasunaren aldeko eta indarkeria sexistaren aurkako euskal udalerrien sarearekin** lankidetzan aritzea indarkeria matxistaren aurkako borrokan. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |

| | | | |
|---|---|---|---|
| A5. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko esparruan erreferentzia puntuak diren **Euskadiko nahiz Estatuko edota Nazioarteko beste erakunde eta entitate batzuekin lankidetzan aritzea**. | A5.E1 | **Jardunbide egokia identifikatzea**, bai Gipuzkoan bai EAE barruan eta kanpoan, indarkeria matxista jasaten duen emakumeei arreta emateko alorrean. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |
| | A5.E2 | Sakontasunez **ezagutzea** Gipuzkoan garatzeko moduko erreferentzia puntua izan daitekeen jardunbide onen bat. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa |
| | A5.E2 | Egokia bada, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei foru arreta emateko alorrean **esperientzia pilotu** bat diseinatu, abian jarri eta sistematizatzea. | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa<br>Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia |

# IV.- Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Plan guztietan garrantzitsua da definitzea nola egingo den haren jarraipena eta ebaluazioa. Horretarako, zenbait tresna sortu behar dira, eta hainbat mekanismo aktibatu.

Gizonen eta emakumeen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren arabera, Berdintasun Organoari dagokio Gizarte Politikako Departamentuarekin batera indarkeria matxistaren aurkako foru plana diseinatzea eta haren jarraipena eta ebaluazioa egitea. Horretarako, batzorde politiko-tekniko bat sortzea aurreikusten du. Beraz, batzorde hori arduratuko da planaren jarraipena koordinatzeaz, ezarpen maila eta emaitzak kontrolatzeaz, eta plana garatzen laguntzen duten faktoreak baloratu eta sustatzeaz.

Bestalde, Planaren ezarpen eta jarraipen ordenatua egin ahal izateko lan sistema bat artikulatu behar da:

- Planaren ezarpenean inplikatuta dauden departamentuek edo zuzendaritzek urteko programazioak egingo dituzte.
- Urteko jarraipen txostenak egingo dira, urteko programazio horien ezarpen maila neurtzeko. Jarraipen txostenak egiteko, inplikatutako departamentu edo zuzendaritzek bidalitako informazioa erabiliko da, eta Planak berak proposatzen dituen gauzatze eta emaitza adierazleak hartuko dira kontuan.
- Amaierako ebaluazio txostena egingo da; bertan adieraziko da planak, bere indarraldian, zer ezarpen maila izan duen oro har. Bestalde, komeni da txostenean jasotzea plana ezartzen lagundu duten faktoreen eta oztopo izan direnen azterketa kualitatiboa.
- Aurreko guztiaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarraipen tresna orokorrekin ere egingo da emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Planaren jarraipena.

Garrantzitsua da, halaber, planaren jarraipen eta ebaluazioarekin batera sozializazio jarduerak ere egitea, indarkeria matxistaren esparruan esku hartzen duten Gipuzkoako eta EAEko eragileekin, planaren beraren diseinurako baliatu den kontraste logikari jarraituz.

Azkenik, azpimarratu behar da Plan honen sustapenerako, garapenerako eta jarraipenerako beharrezkoak direla hainbat baliabide. Oro har, baliabide ekonomikoak departamentuek beraiek jarriko dituzte, beren urteko aurrekontuetatik.

Hala ere, badaude gai batzuk langile publikoei lotuta egon litezkeenak, indarkeria matxistaren biktimei arreta egokia ematea xede dutenak, eta, halakorik balego, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusitik ere heldu behar litzaieke..